

## V.-Irabazi Iturria:

Gure enpresan, diru-sarrerak lortzeko modua egiten ditugun eskarien arabera izango da. Gure



eskariak prezio finko barruan sailkatzen ditugu eta egunero gutxi gorabehera 80 bidalketa bakoitza 3,5€-koa egitea espero dugu. Gure enpresak egun guztietan egongo da zabalik asteazkenak izan ezik, horregatik hilero eskarietan 7560€-ko diru sarrera espero dugu. Prezio finkoaren barruan sailkatzen dugun arloan zerrendako prezioa produktu edo zerbitzu indibidualei ezarriko genuke, lehen esan dugun moduan, etxera bidaltzeko prezioa ez delako aldatuko.

Gure dronetan beste enpresa batzuen publizitatea egitea eskainiko dugu adibidez gurekin aliantza sortuko dugun enpresen logoak jarriko ditugu promozionatzeko. Horrekin, 250€-ko diru sarrera izatea espero dugu. Gure enpresak hasieran nahiko inbertsioa egin beharko du, dronak eskuratzeko eta beharrezko lizentziak lortzeko, gainera gure enpresari publizitatea egitea lortu beharko dugu. Horregatik hasieran 45.000€-ko mailegu bat eskatu beharko dugu eta lehenengo hilabetetan lortuko ditugun diru-sarrerak gastu horiek ordaintzeko izan beharko dira.